

Audioaren erreferentzia: Bagoaz A2B25 Ping-pongaren sekretuak

Maila: A2

Helburuak: Mintzamenean: Aurrez aurre edo telefonoz, adeitasunezko informazio-trukeak egiteko: zoriondu eta gauza onak opa izatea. Entzumenean: Ezagunen arteko elkarrizketa batean, ideia garrantzitsuenak ulertzeko gai izatea.

Funtzioa: Gauza onak opa izatea.

Lexikoa: esamoldeak (kaka zaharra, bai, noski, barkatu, lasai), ping-pongean jolastu, entrenatu, sakea,

Adierazpide linguistikoak: opa izan, -(z)ea nominalizazioa,

Azken ekintza: Idatzizko mezu labur baten bidez zerbait ona opako diote norbaiti.

1- IKUSI AURRETIK

1.1 Ze sekretu?

Bideoaren izenburua kontuan izanda, atalean zer gertatuko den aurreikusteko eskatuko diegu ikasleei, hainbat aukera emanaz. Galderari bakarka erantzun ondoren, bikoteka, emandako erantzuna komentatuko dute. Bideoa ikusi ondorengo 3.1 puntuan (*Asmatu al duzu sekretua?*) emango zaie aukera honen gainean berriro ere hitz egiteko: pentsatzen zutena zuzena izan den ala ez, norik asmatu duen...

1.2 Esamoldeak

Bideoan Josuk eta Amaiak erabiliko dituzten lau esamolde dituzte ikasleek bi elkarrizketa laburretan kokatzeko

Erantzunak:

1

-Ez dakit nola demontre jartzen den martxan traste hau. **Kaka zaharra!**, azkenean, teknikoari deitu beharko diot.

- **Lasai**, nik lagunduko dizut.

2

-**Barkatu**, zurea al da aterkia?

-**Bai, noski**, ahaztu egin zait, hau burua!

Hutsuneak bakarka beteko dituzte ikasleek. Ondoren, ikaskide batekin komentatuko dute jarritakoa. Segidan, esamoldeak berriak ala ezagunak zituzten galdetuko diegu. Azkenik, esamolde bakoitzarekin ereduaren moduko elkarrizketa labur bat idazteko eskatuko diegu.

2- IKUSI BITARTEAN



2.1 Erantzun egokia aukeratu

Bideoaren lehen zatian ikusitakoa kontuan izanda, eskainitako esaldien erantzun zuzena zein den erabakiko dute ikasleek. Bakarka erantzun ondoren, gelakide batekin konparatuko dituzte erantzunak.

Erantzunak:

- 1.- c
- 2.- a
- 3.- b
- 4.- a

2.2 Hutsuneak bete

  Bideoaren bigarren zatia ikusi bitartean, testuko hutsuneak beteko dituzte ikasleek, adizki egokia aukeratuz.

Erantzunak:

JOSU.— Oslon jarraitzen du, baina bueno, etortzen da tarteka.

AMAIA.— Pozten na

iz. JOSU.— Bai...

AMAIA.— Eta ondo zaindu, e?, zu aguantatzeko ez du edonork balio eta.



AMAIA.— Eta... maite duzu?

JOSU.— Bai. Bai, noski... nola ez?



AMAIA.— Bai ala ez?

JOSU.— Bueno, badakizu, aspaldi ez du t ikusi eta sorpresa izan da Lidez hitz egitea, ez nuen espero.

AMAIA.— Dena ondo joatea opa dizu t, merezi du zu.

  Hutsuneak bakarka bete ondoren, erantzunak ikaskide batekin komentatuko dituzte. Zalantzarik sortzen bazaie, ikusi berriro bideoa transkripzioa aurrean dutela.

2.3 Zein da Amaiaren jarrera?

  Bideoaren bigarren zatia berriz ikusi ondoren, aukeran dauden hiru jarreraren artean Amaiarena ondoen deskribatzen duena aukeratuko dute ikasleek.

Erantzuna: c aukera da zuzena.

  Erantzundakoan, ikaskide batekin komentatuko dute egindako aukera.

3. IKUSI ONDOREN


3.1 Asmatu al duzu sekretua?

Sekuentziaren lehen ariketan proposatu diegu ikasleei zer gertatuko den asmatzea. Pentsatutakoa bete den ala ez eta lagunak asmatu duen ala ez hausnartzeko tartea egingo dugu, bikoteka egin dezaten.

3.2 Jarri arreta hizkuntzan

Opa izan aditzaren gaineko azalpenak eta adibideak irakurriko dituzte ikasleek. [Hemen](#) duzu aditz berezi honen gaineko informazio osatuagoa.

3.3 Esaldiak osatu

 Esaldiak osatuko dituzte ikasleek, adibidean bezala, *opa izan* aditza erabiliz.

Erantzunak:

- | | |
|----------------------------|----------------------------------|
| 1.- Ondo pasa! => | Ondo pasatzea opa dizut |
| 2.- Zorte on! => | Zorte ona izatea opa dizut |
| 3.- Egun zoriontsua! => | Egun zoriontsua izatea opa dizut |
| 4.- Ongi ibili! => | Ongi ibiltzea opa dizut |
| 5.- Azterketa gainditu! => | Azterketa gainditzea opa dizut |

Ping-pongaren sekretuak

TRANSKRIPZIOA

JOSU.— Mendian ondo ibiliko zara korrika, baina ping-pongean...

AMAIA.— Denetan ezin da onena izan, Josu.

JOSU.— Ba entrenatu egin beharko duzu... Ez dut aspertu nahi.

AMAIA.— Bueno, baina ezin dut egun batetik bestera hobetu.

JOSU.— Lasai, nik lagunduko dizut. Azkeneko sakea.

AMAIA.— Kaka zaharra!

JOSU.— Eta 21! Zuk zenbat egin dituzu?, 8?

AMAIA.— Bederatzi!

JOSU.— Ba bai, bai, entrenatu. Bestela, Lidek ere irabazi egingo dizu.

AMAIA.— Lide? Berarekin jarraitzen al duzu oraindik?

JOSU.— Bai, noski!

AMAIA.— A! Barkatu, ia ez duzu ezer esaten berari buruz, eta nola nahi duzu jakitea elkarrekin jarraitzen duzuela?

ETENA

JOSU.— Oslon jarraitzen du, baina bueno, etortzen da tarteka.

AMAIA.— Pozten naiz.

JOSU.— Bai...

AMAIA.— Eta ondo zaindu, e?, zu aguantatzeko ez du edonork balio eta.

AMAIA.— Eta... maite duzu?

JOSU.— Bai. Bai, noski... nola ez?

AMAIA.— Bai ala ez?

JOSU.— Bueno, badakizu, aspaldi ez dut ikusi eta sorpresa izan da Lidez hitz egitea, ez nuen espero.

AMAIA.— Dena ondo joatea opa dizut, merezi duzu.

JOSU.— Mila esker.

JUNE.— Arratsalde on!

AMAIA eta JOSU.— Kaixo!

JUNE.— Zer, dena ondo?

AMAIA.— Bai, bai, dena ondo. Garagardo bat nahi duzu?

JUNE.— Bai, mesedez.

AMAIA.— Oraintxe ekarriko dizut.